



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2023ko abenduaren 27koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE OSOEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2023ko azaroaren 13ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle osoen plazak betetzeko (2023ko azaroaren 24eko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2023ko abenduaren 27koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko otailaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C
FEDERICO
RECart (R:
Q4818001B)

Firmado digitalmente
por 30628936C
FEDERICO RECart (R:
Q4818001B)
Fecha: 2023.12.27
10:09:27 +01'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano

